

Agian ideia oso sinple bat dirudien arren, poltsikoek eta txanoak erosotasun handia ematen dute arropari dagokionez. Beraz, faktore horiek algodoizko (edo likrazko "Sport" adarrean) kamiseta arruntari gehituz gero, arropa-jantzi bat sor dezakegu, praktikoa izateaz gain oso eroso izango dena. Erosotasunaz gain, egoera beroagoetan kirola egiten ere lagunduko luke.

Honekin kamisetak erabiltzeko nobedadea egitea nahi dugu, produktu hau hobetzea da gure helburua, honi gauzak erantsiz edo txertatuz. Hau da, balio kualitatiboa litzateke eskainitakoa. Gure produktuaren fuertea bezero ezberdinen beharretara egokitzen dela esango genuke, kamiseta normalak, txanoarekin, poltsikoarekin eta biekin jarriko ditugu gure merkatuan; baita ere diseinu ezberdinak eta pertsonalizazioa.

Nahiz eta ez izan garrantzitsuena, sudaderak ez direnez, baizik eta kamisetak direnez, hauek baino prezio baxuagoa izango dute zerbitzu berdina emanaz, aldaketa garrantzitsuena ematen duen beroa da, ez du hainbesteko beroa ematen, baina hori ez du zertan izan behar zerbait txarra. Aurretik esandako guztiagatik, lehiakideekin lehiatzeko eta beraietaz bereizteko gai garela esango genuke, gure diseinu, praktikotasun eta berrikuntzari esker.

Produktua eskuratzeko bidalketak egingo ditugu honetan lan egiten duten enprekin, adibidez amazon edo aliexpress. Hauek aplikazio hauekin eskatu ahalko dira, bestela gure webgunean ere eskakuntzak ahalbideratuta egongo dira.